



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona.: 943-313030 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)

**Datorren asteburuan, Udaberriko jaiak!!!**

## **KONTU KONTARI:**

- Garai erabakiorrak
- Elkarrizketa: Koldo Lizarralde eta Jose Inazio Galparsoro



## KAIXO HERRIKIDE!!!

Emakume Langilearen Egunetik bi hilabete igaro diren arren, azpimarratzekoa iruditu zaigu urtetik urtera lortzen ari den arrakasta. Hori dela eta, esku artean duzuen ale hau egun horretan ateratako argazkiekin hastea pentsatu dugu. Zuek ere bertan izan zen giroaz goza dezazuen!



Guztira, 60 bat emakume langile elkartu ziren Olasagastiren sagardotegian. Nahiz eta hasieran denak beraien mahaietan lasai egon, Mainerrek ireki zuen laugarren txotxetik aurrera, kupelen inguruan sortu zen saltsa. Orduetik aurrera izan zen zer kontatua.







Gurutze, Ainitze eta Eli mundua konpondu nahian.



Karmele eta Euxebi aurretik hartutako sagardo tra-goak komentazen.



Eneritz, Birginia eta Jaione zorroztasunez hizketan.



Nekane eta Begoña tokatutako otarrarekin gustura. Azkenak iritsi eta otarra eraman!



Aitziber, hori den hori trikitixa jotzeko ilusioa!



Laura eta Olimpia kantari.



## Garai erabakiorrak

*Hirigintzako Plan Orokorra onartzearen eta Batzar Nagusien erantzunaren zain gauden honetan, garrantzizkoa iruditu zaigu Igeldoren desanexio prozesuaren eta egungo egoeraren nondik norakoak azaltzea. Hori dela eta, Herri Kontseiluko Koldo Lizarralde eta Jose Inazio Galparsoroekin aritu gara hizketan. Atalaren azkenean haiei egindako elkarrizketa ere baduzue. Bestalde, jakingo duzuen bezala, ostegunean Herri Batzarra egin zen. Herriaren etorkizuna izan zen mintzagai, baina zehatz mehatz bertan hitz egindakoen berri hurrengo alean emango dizuegu.*

### 17 urte oztopoak gaindituz

1991n Igeldon kontzeju simple bat osatzeko eskaera egin zitzaion Donostiako udalari. (Zubietan dutenaren antzekoa). Eskaera horri, ordea, udaletxeak ez zion erantzun ere egin. 1993 inguruan, Plan Orokor berria zela eta, hirigintza proiektuak jarri ziren abian Igeldorako. Kaskoaren gainean, 3.000 hektareatan, etxeak egitea aurreikusten zen. Egoera hori ikusita, zerbait egin behar zela pentsatu zen Igeldon.

Herriaren egoera nola zegoen jakiteko eta alternatiben berri izateko Diputazioari azterka bat egitea eskatu zitzaion. Horretarako segregazio eskaera egin behar zela erantzun zuen Diputazioak. Hala, segregazio prozesua jarri zen martxan. SIADECO enpresak egin zuen azterketa eta ondorioetan ikusi zen herri bezala aurrera egiteko eta bizitzeko inongo arazorik ez genuela izango. 1994an erreferenduma egin zen eta igeldotarren erdiak baino gehiagok desanexioaren alde egin zuen.

Desanexio eskaera aurkeztu aurretik, guztia behar bezala zehazteko, eztabaida prozesua jarri zen martxan. Eztabaida horretarako Herri Kontseilua sortu zen auzune bakoitzetik ordezkari bat aukeratu. Bestalde, Itsas Aurre Elkartea sortu zen legeak hala eskatzen zuelako. Izan ere, desanexio pro-

zesu hori gestionatzeko eta aurrera eramateko beharrezkoa zen elkarte bat izatea. Itsas Aurre lanean hasi zen.

Igeldon zegoen mugimendua ikusirik, Diputazioa Foru Lege berria sortzeko lanetan hasi zen. Lege horren arabera, herri izateko gutxienez, 2.500 biztanle izan behar dira. Igeldok desanexioaren aldeko eskaera aurkeztu aurretik jarri nahi izan zuten martxan, baina gutxigatik izan bazen ere, aurrea hartu zion herriak. Hori dela eta, lege berri horrek ez digu eragiten eta aurreko Foru Legean eskatzen ziren bost baldintzak behar bezala betetzen ditugu.

Nahita sortutako legea auzitara eraman zen, baina desanexio eskaerarekin aurrera jarraituz. Eskaera udaletxean aurkeztu zen lehendabizi. Udalak, Foru Lege berriari oinarrituta, ezezkua eman zuen. Itsas Aurrek auzitegira jotzea erabaki zuen eta epaia herriaren aldekoa izan zen. Udalak errekurritu egin zuen, baina EAeko Auzitegi Gorenak emandako epaia ere geure aldekoa izan zen. Diputazioa bideratzea beste aukerarik ez zuen izan udalak. 1998 urtea zen ordurako. Diputazioak, ordea, Foru Legea auzitan zegoen bitartean ez zuela erabakirik hartuko esan zuen. 2003an heldu zen azken epaia Madrildik, Espainiako Auzitegi Goretik. Azken hau ere geure aldekoa.

Ordutik, Diputazioaren esku dago erantzuna. Hala ere, desanexio eskaera egin zenetik, urte asko igaro zirenez eta Igeldoko datuak atzeratuta zeudenez, txosten berriak egitea eta herriak momentuan bizi zuen egoera aztertzea erabaki zen. Hori behar bezala egiteko, epe bat eskatu zitzaion Diputazioari. Hori aitzakiatzat hartuz, erantzuna ematea atzeratu izan dute. Joan den hilaren 16an, ordea, Igeldo udalerrri izateko eskaerari berriz heldu diola iragarri zuen Diputazioak.

### ELM: Udalaren proposamena

1998an, “Ente Lokal Menor” izatera ezartzeko proposamena egin zion Donostiako udalak Igeldori. Deszentralizazioa litzatekeena. Hurrengo legegintzaldian garatu zen Odon Elorza alkate izanik. Gaia kontu handiarekin garatzeko batzorde bat sortu zen. Herriaren ordezkari gisa IHKko hiru kide eta abokatu bat zeuden. Udaletik beste hainbeste. ELM bat izanik eska zitekeen gehiena eskatzera jo zen. Hala, eskumen ugari Igeldoren kargu egotera igaroko zirela erabaki zen (zerbitzuen kudeaketa, zerbitzu horietarako jendea kontratatzeke aukera, herriko ondare eta lurren jabegoa...). Hirigintza, ordea, ez guztiz. Plan Orokorrean eta obra nagusietan herriko azterketak eta iritzia kontuan hartuko ziren, baina azken hitza



Donostiako udalak izango zuen. Lau urtetan bilerak egin ostean, zehaztu zen txostena.

2003an, legegintzaldiaren amaieran, alkateak proiektua onartzeko, biltzeko dei egin zien batzordekoei, baina lurraldetasunaren inguruan kezka batzuk argitzeko zituela azaldu zuen. Zalantzak Ibaeta aldeko eramuak sortu zituen udalean. Izan ere, ordura arte ez zituzten Igeldoren mugak ezagutzen eta Ibaeta aldeko eramuetan hirigintza proiektu indartsua martxan jartzekotan zirenez, bertigoa sartu zitzaizen, nonbait.

Bilera egin, egin zen Odonekin, baina idazkari nagusiari eta Plan Orokorren ordezkariari informe bana eskatu behar ziela eta, 15 eguneko epea eskatu zuen. Dirudenez, Ibaeta aldeko eremuetan hirigintza proiektu horiek martxan jarritz gero, entitate juridiko batek nolako eragina izan zezakeen jakin nahi zuen. Proiektu horiek atzera botatzeko ahalmenik izango genuen jakin nahi zuen. Azken finean, proiektu horiek gauzatu edo ez erabakitzeaz azken hitza Donostiak izango zuen, baina entitate juridiko bezala orain baino babes gehiago izango genuen eta hori ez zitzaizen kome-

ni. Handik aurrera alkateak ez du kasorik egin gaiaz paso eginaz.

### Amaitu da iruzurra

Azken hilabeteetan, EAJ eta EA alderdiek ELMren kontua atera dute azalera udalean. Erantzunak: Odon Elorza alkateak orain delahilabete esan zuen ez dagoela prest "txirringito pribatu bat sortzeko bertan zein politiko jakinek o bost listok nahi dutena egiteko". Duñike Agirrezabalaga Hiritarren Partehartzeaz arduratzen den Ezker Batuko zinegotziak, berriz, ziurtatu zuen bizilagunek eskatutako deszentralizazioa konponduko dela. PPK bere aldetik, alderdi nazionalistek proposatzen duten entitatearen ordez, Hirien Modernizazio Legeak aurreikusten duen distrituen izaera ezarri nahi du.

Itsas Aurrek eta IHKk azken prent-

surrekoan argi utzi zuten bezala, "Donostiako udalaren jarrera izugarrizko adarjotzea izan da. Iruzurra besterik ez, eta antzerki zakar honekin jarraitzeko asmorik ez dago". Horrez gain, herri librea izateko nahia berretsi zen.



Lehen esan bezala, Diputazioaren esku dago orain erabakia. Diputazioak desanexioa onartzen badigu, udaletxeak errekurritzeko aukera izango luke, baina kontrako erabakia bada, guk ere errekurri dezakegu. Prozesua Espainiako Auzitegi Gorenean amaituko litzaiteke. Bestalde, aipatu denez, agian erreferendum berria egin beharko da. Egungo egoera ikusteko balio luke soilik, legez aurrekoak eragiten baitugu.

---

**Elkarrizketa:** Koldo Lizarralde eta Jose Inazio Galparsoro

## "Herri txiki batek ematen duena eman behar dugu. Donostia hor egongo da eta osagarriak izan gaitzke"

**Lehen goan Berriak jarritako titularra: "Donostiatik banatzeko bideari ekingo dio berriz ere Igeldok". Noizbait utzi al genion ba?**

ELM proiektua udaletxeak proposatutakoa zen, ez Igeldok, nahiz eta herritar batzuk horren aldekoak izan. Gehiengoak, ordea, argi utzi zuen desanexioa nahi zuela eta helburua beti izan da herriak erabakitakoa errespetatzea. Probisionalki, ordea, lan tresna moduan ELMk ematen zizkigun onurez baliatzea era-

baki genuen. Alde batetik, desanexio prozesurako babes gehiago izatea bultzatzen zuelako-- entitate juridikoa izanda-- Eta bestetik, maila txikian bazen ere, herri batek nola funtziona zezakeen ikusteko baliagarria izango zelako.

### Zer datorkigu Plan Orokor berriarekin?

Oraingo Plan Orokorrekin herriko kaskoa zabaltzeko proiektua dago berriro ere martxan. Horri aurre



egin behar diogu. 155 etxebizitzek izugarritzko eragina izango dute Igeldon eta Donostiari ez dio etxebizitzaren arazoa konponduko. Populazio aldetik 400 bat pertsona gehiago izango gara. Guretzat bere biziko garrantzia du eta hori egin behar dugu, garrantzia eman. Martxa honetan, Igeldok garapenerako daukan lurrak desagertu egingo dira urte gutxian. Gainera, etxebizitzak Donostiara zuzenduta egongo dira eta igeldotarrak ez dugu aukerarik izango horren aurrean.



### **Kaskoko proiektuaz aparte badira gehiago?**

Hilabete honetan Plan Orokorraren lehenengo onarpena egingo da (aprobación inicial). Orain arte onarturakoak irizpideak (criterios) izan dira eta hor baziaren proiektu gehiago. Leku Eder-Gudamendi eta Ibaeta aldekoak. Oraindik ez dugu plana jaso, baina dakigunez, kaskoan egingo dituzten 155 etxebizitzena bakarrik aipatzen da. Gerora besteak sartuko dituzten ala ez, ez dakigu, baina lehen onarpen honetan behintzat ez. Horregatik orain esku artean dugun proiekturik garrantzitsuena kaskokoa da.

Hori geldiarazteko lehenik alderdiekin hitz egingo dugu eta aurrera jarraitzen badute, agian sinadura bilketaren edo beste zenbait ekimen egin beharko ditugu.

### **Udalerrri izango bagina...**

Udalerrri izateko aukera bagenu, Igeldoren izaera bizirik mantenduko genuke. Herria bertatik antolatzeke eta jendearen parte hartzea bultzatzeko aukera izango genuke. Azken finean, Igeldo igeldotarrak beharren arabera garatuko genuke. Edozer gauza egiteko ere askoz hobe litzateke; bai gestioak egiteko bai edozein arazo konpontzeko. Egun, Plan Partziala gestioatzeko aukerik ere ez dugu. Ezta jarraipena egiteko ere eta izugarritzko akatsak egiten dituzte, herritarrengan eragin handia dutenak.

### **Gaur egun, Segregazioaren aldekoa litzateke gehiengoa?**

Guk baietz uste dugu. Jende gazte asko dago lehen ezin izan zuena bozkatu. Berriak ere etorri dira, baina horiek ere ikusi dute masifikazioa ez dela onuragarria. Horrez gain, Donostiak urte hauetan izan duen jarrera ezagutu ahal izan dute. Udalak ez ditu hementxo beharrak behar bezala asetzen eta beti harrokeriaz jokatu izan du. Deszentralizazioaren aldekoak ziren zenbaiten iritziak ere aldatzea eragin du horrek.

### **Askotan Donostia hartzen dugu eredutzat, baina hori al da benetako eredia?**

Donostia eredutzat hartuta zenbaiti irdutitzen zaio ez garela herri gisa aurrera ateratzeko gai izango, baina guk ez dugu hiri batek ematen duena eman behar, herri txiki batek ematen duena baizik. Donostia hor egongo da eta gu hemen, osagarriak izan gaitzeketa bata bestearekiko.

### **Nola bizi izan dituzue urte hauek?**

Izugarritzko esfortzua egin behar izan dugu beti edozein tontakeri eskatzeko. Beti udalaren atzetik. Deszentralizazioarena, berriz, izugarritzko arpajotzea izan da. Lau urtean bueltaka ibili, ilusioarekin bizi eta ondoren hau. Lan asko egin da eta erakutsi duten errespetua, erantzunik ere ez ematea. Nazkatuta gaude udaletxearekin.

### **Agerian geratu da ez dutela Igeldo ezagutzen.**

Gauza guztiak ongi pentsatu gabe egiten dituzte. Bururatzen zaien bezala eta bestela ez egitea erabakitzen dute. Inongo kontsultarik egin gabe eta bertakoon lehentasunak zeintzuk diren jakin gabe. Txokolatene beheko bidearekin argi ikusten da. Urte pila daramatzagu hori egiteko esaten. Azkenean onartu zuten egitea, dirua ere bideratu zuten hortarako. Orain dela aste batzuk, berriz, diru hori Orioko Bentako bidea berritzeko erabiliko dutela esan digute. Zerk du lehentasun gehiago, bidea berritzeak ala biderik ez duen baserri bati bidea egiteak?

### **Erreleboa hartzeko herritarren (gazteen) jarrera nola ikusten duzue?**

**J.I.G.:** Gu gazte ginen garaian herri mugimenduek indar handia hartu zuten. Orain, oro har, individualismoa garatu da. Gainera, norberak dituen beharrak asetzeko herritik kanpo aukera gehiago daude. Jendea ez da leku batera mugatzen, zailagoa da.

**K.L.:** Gure ondorengo generazioan hutsune bat egon zen, baina orain uste dut badagoela jendea erreleboa hartzeko moduan. Prestaketa beharko dute, noski, baina hori praktikarekin lortzen da.



## Herrian ze berri?

### Haur txokoa, eskolako kantxa eta haur eskola

Udaletxeko Gazte Departamenduko bi teknikarirekin bilera egin zen. Bertan IHKkoak, Guraso Elkartekoak eta Kixmiko kideak elkartu ziren. Bilera horretan, bate-tik, Igeldon haur txoko bat jartzeko asmoa azaldu zuten eta herriak hala nahi izanez gero, bertaik kudeatzeko aukera bazegoela esan zuten. Kudeaketa hau Kixmi Aisialdi Taldeak egin dezakeela ikusten da eta hauek haur txokoa martxan jartzeko prest daude.

Bestetik, eskolako kantxak, eskolaz kanpoko orduetan zein udan, irekitzeko aukera dagoela esan zuten. Hori ere herriko talde batek kudeatzea aurreikusten da.

Azkenik, 0-2 urte bitarteko haur eskola martxan jartzekotan dela aipatu zuten. Horren berri gehiago Guraso Elkartek dauka.

### Ipuin kontaketa

Maiatzaren 31n (larunbata), Teresa Lopez de Munain ipuin kontalaria-ren eskutik emanaldia izango da. Edonork izango du bertaratzeko aukera, baina berez, 5 urtetik gorakoentzat gomendatzen da.

### Musik@rte

Musik@rtekoek orain dela hilabete batzuk aipatutako txostena aurkeztu dute eta bertan, orain arteko ibilbidearen hausnarketa eta etorkizunari buruzko planteamenduak azaltzen dira. Txostena hori sakonago aztertu behar dela ikusten da. Aurrerago bilera berezi bat egiteko asmoa dago.

Bestalde, herriko festei begira, **plaza dantza ikastaroa** antolatu du Musik@rtek. Maiatzaren azken ostegunean eta ekainaren lehen hiru ostegunetan izango da. Maialen Aizpiolea izango da irakaslea.

### Gazte Lokala ekintzaz blai!

Udan ez duzula dirurik oporretara joateko? Nagusiak ez dizula oporrik eman nahi? Lasai! Gazteok zenbait ekintza antolatzen ari gara udan ere herria bizirik mantentzeko. Ekaina, uztailea eta abuztuan zehar hitzaldiak, antzerkiak, pelikualak, mahai-jolas txapelketak, afariak eta mendi irteerak izango ditugu.

Adi! tabernetan izango duzue egutegia dena lotuta dugunean. Interesa duzuen horretan parte hartu eta ondo pasa!

*Gazte sentitzen garen guztiontzat*

## Irakurleen txokoa

### Gu kontra, ez motel!

Aurreko astean, argazki lehiaketa zela eta, Itsas Aurrera joan nintzen bertako informazio panelean azaltzen baitziren aipatutako lehiaketan bete beharreko baldintzak. Informazio panel honen gainean, bi prentsa artikulua ikusi ahal izan nituen, baina azpian zegoen lehiaketa orririk ezin ikusi!

Artikuluak irakurtzen hasi eta kanpotik etorritako magrebiar gazteek sortzen dituzten arazoak, euren eraginez egoten diren salaketen portzentaien igoera... Hori bai, bukaeran betiko zurikeria: “no estamos contra los chavales!”.

Itsas Aurreko informazio panela herriko ekimenean nguruko infor-

mazioa jartzeko dela iruditzen zait eta gainean edozein informazio jartzea azpiko deialdi edo ekimenak ezkutatuz, errespetu falta. Akaso, “No estamos queriendo ocultar la información del panel” esango dute!



*Herritar bat*

### Usurbilgo solidarioak

Argazki honetan ikusten den bezala, Igeldotik kanpo ere baditugu solidarioak. Izan ere aipatutako argazkia Usurbilen ateratakoa da.

Idatzitakoari erreparatuz, benetako atxikimendua adierazten digute. Agian, Donostiari hainbeste begiratu beharrean, hobe genuke halako elkartasuna adierazten digun herriari begiratzea.

*Eskerrik asko Usurbil!*



# UDABERRIKO JAIA

## IGELDO KULTUR BHERRI

### Maiatzak 15, osteguna: Baserritarren eguna

**19:30** Harri proba saioa 500 kiloko harriarekin. Zazpi igeldotar Gorostiko behorraren kontra. Atsedendian, bertsolarien saioa egongo da plazan.

**Bertsolariak:** Amets Arzallus eta Sustrai Colina.

**21:00** Herri afaria Itsas Aurren Alkorta anai-arreba trikitilariekin eta Amets eta Sustrai bertsolariekin.

*\* Prezioa: 25 euro. Txartelak Mendizorrotz, Txapela eta Txistu tabernetan salgai.*

### Maiatzak 16, ostirala

**17:30** Haurrentzat Txan Magoa. Ondorenean, txokolatada. Asteburu osoan zehar herbario baten erakusketa egongo da.

**22:00** “Eutsi!” luzemetraiaren emanaldia kultur etxean.

### Maiatzak 17, larunbata

**11:00** Eskolak herriari atek zabalduko dizkio.

**11:30** Eskolako haurren emanaldia.

**12:30** Guraso eta haurren arteko futbito eta saskibalo partidak.

**17:00** Umeentzat bideo emanaldia kultur etxean.

**21:45** Argazki eta Literatur lehiaketako sari banaketa.

**22:00** Antzerkia: “**Larru haizetara**” antzezlan Patxo Telleria eta Mikel Martinezen eskutik.

**00:00** Kontzertua. “**Etxe**” musikari bizkaitarraren emanaldia Gazte Lokalean.



Igeldoko  
Herri  
Kontseilua

Laguntzailea:

